



BIZKAI'KO
FORUAK
PUXANA ETA
AGIRREGABIRIA'
TAR KEPA'K
LEENENGO ALDIZ
EUSKERARA
ITZULIAK
ESTORNES ETA
LASA'TAR
JOSEBA FORU-
-ADIERAZLE.
MCMLXXXI

ZER

BIZKAIEREAREN ASTEA

Bizkaierearen II Astea egin dogu, iragarrita egoan lez. Bilbo'ko Eskolapioen Ikastetxean izan da, Errekalde'ren Ibiltegian, 19'an, orrillaren 6'tik 10'era.

Batez beste 60 bat entzule izan doguz egunero. Bilbo'n batzeko kopuru naikoa aundia izan dala esan lei, egualdiak oso txarrak izan zirala kontuan artu ezker.

Lenengo itzaldia Pedro Pujana'rena izan zan eta bere gaia: "Bizkai'ko Forua euskeraz". Itzaldi au, oso-osoa idatzita, zenbaki onetan argitaratzen dogu. Ez daukagu ba, gai oneri buruz geiago ezer esan bearrik, Pujana'k berak dana argi ta garbi agertzen dau-ta.

Egun orretan, gaiñera, "Bidetik amesetan" idazpurua daroan Zubiri'tar Iñaki "Euskerazaleak Alkartea"ren Zuzendari jaunarena dan olerki liburua aurkeztu genduan.

* * *

Bigarren egunean Arejita'tar Adolfo jaunak egin eban berba eta bere gaia "Joskerea Bizkai'ko Euskalkian eta besteetan" izan zan. Itzaldi au eta beste guztiak ZER onetan argitaratuko doguz eta bear ba'da igazgo ta aurtengo berbaldiak batuta liburu bat ateratea be ba-leiteke.

Adolfo jaunaren itzaldia jakituriz beterikoa izan zan. Ondo dakigu Arejita irakaslea arlo onetan oso jakituna dana eta maisutasun ori argi agertu zan itzaldi orretan, bai galdegaiaren arazoak argitzean, baita joskereak gure artean dauzan beste jokabide batzuk erakustean.

* * *

Irugarren eguneko Izlaria Etxenagusia'tar Karmelo jauna izan zan. Onek bere bizitza guztian egin dau lan ikasleen lagungarri lez lorategiak argitaratzen eta euskeraz agertu diran olako "antoloji" guztiak aztertu ebazan, batzuk sakonago beste batzuk azalago, guztiz berrogei inguru dirala. Lorategi edo antoloji onein moltzoratzea be ondo egin eban.

* * *

Laugarren egunean gure ZER onen Zuzendari dan Olazar'tar Martin'ek egin eban berba eta bere gaia "Bizkaierearen lutelestia" izan zan. Euskerea nondik nora zabaltzen zan eta noiz eta zergaitik lur-zatiak galtzen joan dan azaldu eban. Gero euskalkien arazora sartu zan eta onein barruan bizkaiereak izan dauzan lurraldeak eta gaur dauzanak zeintzuk diran iragarri. Azkenean labur-labur, bizkaieria galtzeko bideak zeintzuk diran aztertu euskun.

* * *

Eta azkenengo egunean "Ikastolak Bizkaia'n" gaia dala, Berrojalbiz'tar Julia andreak egin eban berbaldia. Bizkai'ko Ikastolen sorkuntza eta amabost urte inguruan oneik izan eben kondairea zeatz eta garbi edestu eban, aldi larri areitan erakunde legebidekoak, Eleizeak, gurasoak eta beste abertzale askok izan eben jokabidea argituz.

Egun guztietan, itzaldia amaitu ondoren alkar-izketea egin zan, batzutan luzeagoa beste batzutan laburragoa, itzaldiaren luzeerea be kontuan dala eta danaren azkena sasoz giteko gogoaz.

Urduritasuna agertzeko, urte guztietan egiten dan itauna egin zan: Zer egin Bizkaia'n bizkaieria indartzeko? Zer bait egiten diardugu, baiña arazoa il edo bizikoa dan ezker, asmamen geiago ta lan geiago beariko da.

Lau egunetan agertu ziran DEIA'n. berbaldien laburpenak eta Erri-Irratian be izan dira barri-emote astitsuak. Urrengo urtean be lan onetan jarraitzeko ustea dago.

BIZKAIKO FORUA EUSKERAZ

1. SARRERA

BIZKAIKO FORUA EUSKERAZ izan da ber-baldi onetarako izendatu dausten gaia.

Iru zatitan bananduko dot nire jardunaldi au. Leenengoan Foruari berari eta Bizkaikoari batez be—Bizkaiko Foruaz diardugun ezker— dagokiozan arazoak argitzen aaleginduko naz. Bigarreanean Bizkaiko Forua eta euskera erabiliko dot aztergai. Iru-garreanean Bizkaiko Foruaren euskerazko leen-itzulpenari lotuko naiako.

Aurretiaz, sarrera lez, zerbait adierazo gura neuke, gero esango doguna ulergarriago egingo dausku-ta.

Erri bat bere eskuko eta bere buruaren jabe izan daiten, gauza bi dira bear-bearrezko: legegintza eta ondasunen erabilkuntza eta banakuntza.

Baldintza bi oneetatik leenengoa premiñazkoagoa dala esango neuke bigarreana baiño, ondasunen erabil-teak garrantzi aundia baiño aundiagoa daukala jakin badakit baiña.

Legeak beretzat egitea erri bati ken badakio, erri ori ezin daiteke ezelan be aske eta lokabe izan. Bestek ezarritako legez bizi bear izango dau. Eta bestek eza-rritako legeak daukazan erria iñoren morrontzapean eta buztarripean dago.

Erri-bizitzearen antolabide eta erabide legeak dira. Gizarte-bizitzak bere frutuak emon dagizan, taiuzko bizikidetasun bat etorbideratu daikeen legeak nai-ta-ezko dira. Legerik бага naastea letorke berea-laxe. Erri-bizitzearen auste, ain zuzen. Ezin egiazko gizarte-bizitzarik izan. Au dala-ta, erri batek, erri lez bizi eta iraun nai badau, legeak beretzat ber-berak

egitea beste ezer baiño leenago lortu bearreko gauzea da.

Auxe, berba bitan esanda, Foruen esangura nagu-sia eta mamintsua. Auxe Kondairan zear Bizkaian eta Euskalerrri guztian Foruak izan daben aparteko garrantzia.

Foruak bir-eskuratu nai izatea, beraz, orixe beste-rik ez da. Euskaldunok geuretzat legeak egiteko esku-bidea izan dagigula. Euskalerrriari euskal erriak ezarri dagiozala legeak, ez bestek.

Gure egunotan Foruak bir-eskuratu nai izatea tentelkeria utsa, Erdi-Arora biurtzea dala, orain bos-teun urte-edo bizi izan ziranez bizi gura izatea, leize-bizitza eroan nai izatea eta onango gauzak iñoiz ira-kurri izan dodaz.

Onan berba egiten dabenak Forua zer dan ez dakie. Eta ain Foruzale izan dan Euskalerrri onek zer gura izan dauan ez dakie. Edo jakin badakie, bearba-da, baiña eskubide nagusi ori autortu baiño leenago esatekoak esan bear.

Foruak bir-euskeratu ezker, ez dogu esaten Eus-kalerrrian leengoratu egingo litzatekenik, au da, XX-garren gizaldiaren azkenerantza bizi garean euskal-dunok Erdi-Aroko bizitza-erara biurtuko gintzakeze-nik. Auxe, bai, benetan tentelkeria izango litzatekela!

Aldian aldiko legeak izango litzatekez. Amaisei-garren mendean mende oni egokiozan legeak. Ogei-garreanean mende beroni dagokiozanak. Beste mende baten mende berorri legokiozanak. Besterik esaten jardutea, bitarik bat da: ezer ez jakitea edo Foruen aurka edozein ergelkeri jaurti nai izatea.

2. FORUA ZER DAN

Forua edo Foruak izena beronen sortzezko esangura zeatzean artu badagigu, auxe esango genduke:

Forua erri bateko *usarioak* eta *oiturak* dirala, erri orretan berez-berez sortu ziran usarioak eta oiturak, usarioon eta oituron arabera bere erri-bizitza eratu egian.

Foruaren zertasan berezia zeaztu dagigun, berba biok —usarioa eta oiturea— dira bearrezko, Forua berba biok alkartzetik sortzen da-ta. Foruak, esan be, aspaldidaniko oiturea esan gura.

Forua, beraz, beronen jatorrizko zer bereziari bagagokioz, ez da lege bat, zentzun onetan be artu egiten da baiña. Ez da legegille batek emoniko eta aginpidez ezarritako zerbait, ezta erri bateko geien-goak erri guztiari arrezarizko zerbait be. Forua erri bateko usarioak eta oiturak dira, idatzi aurretik, erriaren errainetan sortuta gero, eundaka eta bear bada millaka urtetan errian bertan gorde eta bete izan diranak (Adrián Celaya, “Derecho Civil y Foral de Vizcaya y Alava”, 10 eta 11 orr.).

Bizkaiko Forua zer dan itaundu badagidazu, beraz, esandako au Bizkaiari ezarri baiño ez daukazu.

Au da:

Bizkaiko Forua Bizkaiko erriko usario eta oitura zaarrak dira, usario eta oituron arabera bizkaitarrak euren erri-bizitza eratu eta zuzendu eta euren erriaren izanbidea zeaztu eben-eta.

Au argitzeko eta egiztatzeko, ondo letorke Bizkaiko Foru-liburuak dakazan legeen asieran geien aitatzen dan esakera gogora ekartea.

Ikusi, adibidez, IV Atala, I Legea:

“Baita, esan eben: Foruz ebela eta legetzat ezarten ebela...”

Foruz ebela, au da, aurretiaz, usarioz eta oituraz ebela, eta aurretiaz eben usario eta oitura ori lege egiten ebela.

Ikusten danez, Forua legea baiño aurreragokoa da. “Antes de que se escribiera una sola letra, el Fuego existía”, diño Adrián Celaya jaunak (aitaturiko liburua, 15 or.).

Au dala-ta, itaun egin daiteke: Bardin ete dira Forua ete Lege Zaarra? Gaur, esan be, Forua edo Foruak esan bearrean, Lege Zaarra edo Lege Zaarrak esaten dabe-ta.

Foruaren sortzezko eta jatorrizko zertasanari bagagokioz, ez da bardin. Forua gauza bat da eta Lege Zaarra beste bat. Forua lege egin bako eta lege aurretiko usarioa eta oiturea da, esan dogunez.

Usariook eta oiturok, alan be, bete egin bear ziran, eta onetan erritar guztiak egozan beartuta. Oiturazko legea be esan dakiok, beraz, Foruari. Edo lege idatzi bagea. Onangoa ei da gaur Ingalaterrak daukan legea be, nik irakurri dodanez. Eta Euskalerrian antxiñako Arrantzaleen Kofradiak usarioz eta oituraz ebazten ei dabez euren auziak.

Orra Foruaren sortzezko zertasuna.

Geroago usariook eta oiturak lege egin zeitekezan. Bizkaian orixe jazo zan, antxiñatiko usario eta oitura zaarrak, urtetan eta urtetan eta mendetan eta mendetan erriak gorde eta bete izan zituanak Gernikako Zugatzaren pean egiten ziran Batzarre Nagusietan legetzat ezarri eta idatzi egin ebezan-eta.

Eta lege egin eta idatzi egin zituen ezker, esangura zabal baten —esangura zabal baten diñot— Lege Zaarra be esan dakiok Foruari.

Beste izen bat emon dakiokela uste dot Foruari: **ERRI-ESKUBIDEAK**. Orra berba labur batez dana esanda.

Forua aitatzerakoan, Euskalerriko eta euskaldunen eskubideak adierazoten doguz.

Eskubideok Batzarre Nagusietan legetzat ezarri aurretik, usarioz eta oituraz errian gorde eta beta izan ziran, esan dogunez. Eta gero erriak berak bere ordezkarien bitartez Batzarre Nagusietan legetzat ezarri.

Forua, ondorenez, erri-eskubideen bilduma dogu. Eta erri-eskubideok, legetzat ezarrita gero, liburu baten daukaguz bilduta. Orixo Bizkaiko Forua deritxan liburua.

Euskaldunak izan zituen Foruak eta, beraz, Bizkaikoak be bai, Gaztelako Erregeak emonak izan zirala irakurri izan dot bein baiño geiagotan. Eta Erregek emonak izan ziran ezker, Erregek berak bere naierara ken legikezala.

Gaur be onantxe idazten dabe batzuk. Egun asko ez dala, zati auxe irakurri neban aldizkari baten: “En 1876, al final de la segunda guerra carlista, Cánovas suprimió los Fueros vascos mediante la Ley de 21 de julio, en medio de un clamor inmenso de toda España contra los privilegios vascos y contra los propios vascos” (EPOCA, 1985, n.º 1, pág. 47).

Lerro oneek idatzi ebazan idazleak Bizkaiko Forua ez eban irakurri. Lege-bilduma au irakurri izan baleu, ez leukezan idatzi ebazan berbak idatziko.

Bizkaiko Foru-liburuak asieran dakarren sarrera luze aretan —gerotxoago ikusiko dogu— argi eta garbi dator Bizkaiko Forua nondik datorkigun eta non eta zelan sortu ziran bilduma orrek dakazan legeak.

Ez, ez! Erri-eskubideok ez ziran iñork emonak izan, ez Bizkaiko Kargudunak, ez Jaun Aundiak, ez Erregek berak. Erriaren gungunean izan eben sorrera.

Ez ziran goitik beera ezarriak izan. Alderantziz bai, ostera. Beetik gora etorri jakuzan. Lege-indarra lortzeraiño etorri be, erriak berak bere ordezkarien bitartez Batzarre Nagusietan legetzat ezarri ebazan-eta.

Eta ondoren, agintariak onartu, Bizkaiko Jaunak be bai, Erregek berak be bai.

Orra erria agintedun eta agintari. Orrexegaitik bere buruaren jabe. Eta demokrazia erriaren agintera bada, orixe egiatzko demokrazia.

Au argitzeko, Bizkaiko Forua irakarri besterik ez dago. I Ataleko I Legeak onan diño:

“Bizkaiko Jaun bakoitzak, naiz aurretiko Jauna illik dala-ta, naiz beste errazoren batez, Jaurerriaren jarraipena eskuratzean, adiñez amalau urtekoa baldin bada, Bizkaira ber-bera etorriaz, zin egiñik, agintzak barriztau egin bear dituala... Eta bizkaitarrak ori eskatuz gero, aitaturiko onartzea egiteko eta ziña egiteko, urte barruan etor ez badadi, bizkaitarrak, naiz Lurralde Lauan, naiz Enkartaldean eta Durangaldean bizi, ez dagioela erantzun, ezta urte-saripeko diran errietako eta baserrietako zergarik Jaunari eroateko joan be... Eta bitartean Jaun onek agindurik eta betebearrik bialdu badagi, men egiñik, ez bedi bete.”

Atal bereko XI Legeak auxe diño: “Bizkaiko Jaunak Bizkaiko Legeen eta Foruen aurka emondako

edo emon eragiñiko Errege-Eskutitzik edo Erabagirik, edozer dala-ta be, edo-ta Legeon eta Foruon aurkakoa izan badaiteke, zuzenka naiz okerka, ez daitela bete, baiña men egin bekio”.

Men egin eta bete ez? Zelan izan lei ori? Gauza bat baieztatzea eta era batera berau ukatzea ez ete da berbeta ori? Onantxe dirudi begiratu batez.

Ez da orrelan, baiña: “Resistencia pasiva” dala-koaren jarrera izango litzateke, au da, agirian eta jendaurrean aurkarik ez egin, baiña era batera jaramonik be ez.

Beste adiera bat izan legikela entzun neuntsan Frantziako Ikastetxe Nagusi bateko Irakasle dan bati, au da, Erregek bialdu legiken erabagi ori onartzen dala; ez daitela, baiña, lege egin, edo erabagi bakar —“exzepziño”— bat baiño ez daitela izan, euskaldunak euren eskuko izatea galdu ez dagien.

3. BIZKAIKO FORUA NOIZTIKOA ETE DA?

Forua, idatzitako legetzat artu badagigu, noiztikoa dan badakigu: 1452 eta 1526-garrenean egiña.

Baiña Foruaren sortzezko esangura zeatzari bagagokioz, au da, idatzi aurretik urtetan eta urtetan Bizkaiko erriak gorde ete bete zituan usuario eta oiturari bagagokiez, batek badaki Bizkaiko Forua noiztikoa dan.

Bizkaiko Forua noiztikoa dan itandutea, Foru orri sorrera emon eutsan Bizkaiko erria noiztikoa dan itandutea beste da.

Au da: Bizkaiko Forua edo Foru orri sorrera emon eutsoen usuario eta oiturak, euren mamiñean eta jatorrizko izatean Kondaira-aurrekoak izan daitekezala, diño Jose Lasa Apalategi jaunak bere “Gernika, cuna de la democracia vasca” liburuan. Neuk be onantxe dala uste dot.

4. FORU ZAARRA

1452-garreneko bagillaren bigarrenean, Pedro Gonzalez de Santo Domingo Korrejidore zala, Gernikako Andra Mari elizan, Foru-Alkateak eta beste

Aldun batzuk eskari auxe egin eutsoen Korrejidoreari: Bizkaiko usuario eta oiturak idatzi barik egozan ezkeru, idaztea eta izkribuz ezartea guztiz mesedegarri izango litzatekela, idatziz ipiñi barik egozalako, erriari kalteak eta kalteak etorkiozala-ta.

Eta Korrejidorearen aurrean gizon batzuk izendatu ebezan, Bizkaiak zituan usuario eta oiturak izkribuz ezarri egiezan.

Foru edo lege-bilduma au Gernikan aurkeztu zan 1452-garreneko garagarrillaren 21-an.

Auxe da leenengo Bizkaiko Forua edo Foru Zaarra deritxana.

Foru Zaar au lau Erregek, zin egiñez, onartu eben:

- 1452-garrenean IV Endrikek.
- 1473-garrenean Isabelek (artetan Erregeingai zala).
- 1476-garrenean Fernando Katolikuak.
- 1512-garrenean Doña Joanak.

5. FORU BARRIA EDO BARRIZTATUA

Irorogei eta amalau urte igaro ondoren —gizaldia- ren lau zatitatik iru— Foru Zaarra erabarritu bearra etorri zan.

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

EUSKERAZALEAK

1985

UDAKO IKASTAROA

BIZKAIERAZ

IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA

EGUNAK: ASTELENETIK EGUENARTE
GARAGARRILLAN

ORDUAK: ARRATSALDEKO 5'etatik - 7'etara
EDO 7'etatik - 9'etara

ORDAÑA: 2.500 peseta.

IZENA EMOTeko . TOKIA: EUSKERAZALEAK
COLON DE LARREATEQUI, 14 - 2
BILBO.
URRUTIZKIÑA 423.53.22

CURSILLO DE EUSKERA VIZCAINO. 3 NIVELES Y CONVERSACION

DIAS: LUNES A JUEVES - JULIO -

HORAS: 5 a 7 6 7 a 9

PRECIO: 2.500 pesetas.

INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK
COLON DE LARREATEQUI, 14-2 BILBAO.
TELEFONO 423.53.22

Au guztiz gogoangarri da guretzat.

Batzuk uste izaten dabenez, Forua ezer aldatu barik gorde eta jagon bear da, aldiaren joana eta gizartean izan diran aldakuntzak kontutan artu barik. Ez, ori ezin leiteke izan.

1526-garreneko jorraillaren bostgarrenean Gernikako Zugatzaren pean egindako Batzarre Nagusian, Pedro Giron de Loaisa Jaurerriko Korrejidore zala, eta berrogei eta amazortzi elizateetako aldunak eta zergazaiñak (zergazaiña: fiel, cargo) bertan zirala, Foru Zaarra barriztatu egin bear zala ebatzi eben. Erabagi au zer zala-ta artu eben, Foru-liburuak berak diño asierako sarreran.

“Bizkaiko Jaurerriko Forua antxiña idatzia, eta ez bakerik, ez Zuzentasunik, ez Letrau ugaririk ez zan aldian, eta Jaurerrian orain daukagun auziei buruzko jakiterik (Jainkoa goratua izan daitela) ez zan aldian eratua izan zala esan eben. Ori dala-ta, gaur bear ez dan ainbat gauza idatzi zan Foruan; beste batzuk, oster, denporak aldatu egin diranez, eta ikusien gaiñera dakigunez, alperreko egin dira: beste batzuk, barriz, erriaren bakebide eta nasaibiderako bearrezko diranak eta usarioz eta oituraz bete izan diranak ezarri barik dagoz bertan...” (Bizkaiko Forua, 8 or.).

Foru Zaarraren lege batzuk alperreko egin ziran, beraz. Eta beste usario eta oitura batzuk agertu errian.

Eta Foruan agertzen ez ziran usario eta oiturak lege-indarra izatea erriarentzat guztiz onuragarri izan.

Orretarako lege-bilduma barriztatu egin bear. Barriztatze au erriak bere ordezkarien bitartez egingo dau.

Foru Zaarra “antxiña” idatzia izan zala diño Batzarren aretan artu eben erabagiak.

Antxiña? Irurogei eta amalau urte baiño ez. Ez zan, ba, orren zaarra eta orren antxiñakoa.

Baiña bitarte aretan aldakuntza aundiak izan ziran, antza. Eta lege batzuk alperreko egin eta oitura barriak agertu.

Erdi-Aroaren amaieran gagoz, egon be. Kondairaren aldi barri bat jaioten daukagu. Eta aro barri au etor dakigunean, erri-erakunde barriak sortuko dira

Bizkaian. Aldaketa sakonak eta gorabeera aundikoak gaiñean daukaguz. Eta aurki etorriko diralakoaren itxurak dagoz. Orrexegaitik Foru Zaarra barriztatu bearra, garai aretako bizkaitarren eretxiz.

Aitaturiko 1526-garreneko jorraillaren bostgarrenean egindako Batzarre Nagusi aretan, Foruaren barriztatze-lana burututeko Batzorde bat izendatu eben, amabi gizonez osaturiko Batzordea.

“Gizon eskolatu, jakitun eta barru garbikoak eta Bizkaiko Foru, usario, oitura eta erri-eskubideetan aitua ziranak izendatu bear zirala”, esan eben (Foru-liburua, 9 or.).

“Eta orretarako, guztiak bat eginda, Ugarteko Joan Santxez Batxillerra ta Muxikako Diego Otxoa Lizentziduna ta Burgoako Martin Perez Batxillerra ta Zirarruistako Ortun Santxez Batxillerra ta Ugarteko Lope Ibañez eta Belendizko Rodrigo Martin eta Baraiako Pedro Foru-Alkatea eta Iburgüengo Iñigo Urtiz eta Zarrako Martin Urtiz eta Oinkinako Martin Saez eta Gerrako Otxoa Urtiz eta Lunoko Pedro Martinez izendatu zituen” (Foru-liburua, 10 or.).

Batzartuta egozan guztien izenean “bear ainbateko aalmen osoa emon eutseen, eta erria ondo zaintzeko barriztatu egiela, bertoko auzibideak garbitzeko ta bizilagunen nasaibide eta bakebiderako bear zan guztia idatzirik: alperrekoa eta bearrezkoa ez zana kendurik, erantsirik edo mozturik, eurak zelan eritxen eta alantxe” (Foru-liburua, 12 or.).

Eta ogei egunetan burutu egiela Forugintza guzti ori agindu eutseen.

Ogei egun baiño ez langintza orretarako?

Gaur be onango lan astun eta garrantzitsu baterako epe laburregia izango litzateke. Eta orduan?

Bada, alan be, arriagarriagorik. Batzordeak ez zituan ogei egun bear izan egitekoa burutzeko.

Bilboko uri ondo-ondoan egoan Najako Martin Saez-en etxean batu ziran urte orretako abuztuaren amargarrenean, eta amar egun igaro orduko barriztapena egiñik euken.

Goizean seiretan asten ziran lanean eta amarrak arte jardun. Arratsaldean ordubatetatik bostak arte barriri be ekin eta ekin.

Foru Zaarretik zer kendu eta Barrian zer erantsi zeaztu ebenean, Batzordeak gizon bi izendatu ebazan Foru-liburu barria idazteko: Jaurerriko Letrau zan Martin Perez Batxillerra eta Jaurerri bereko Sindiku zan Ibarzüengo Iñigo Urtiz.

Agindu zorrotz au emon eutseen: Gernikan, Antxiñako Andra Mari eritxan elizan alkartu zeitezela, eta eliza aren barruan eurak barriztatu zituen lege zaar eta barriez liburu barri bat egin egiela, legeok atalka banandurik eta lege bakotxaren adiera idazke-ra on eta garbiz argi azaldurik. Eta langintza au buru-tu arte ezetariko eginkizunik ez egiela euren gain artu.

Eta oraintxe dator arrigarriena.

1526-garreneko abuztuaren ogeigarrenean lepo-ratu eutsen Batzordeak egiteko ori aitaturiko gizon biei. Eta abuztu orren ogei eta batgarrenean, euren ekitaldia amaiturik, Foru Barria Bilbon aurkeztu eben Batzordearen aurrean.

Foru Barriaren eratzea eta idaztea ogei eta lau ordutan egin eben, beraz.

Bilbotik Gernikaraiño joan (oiñez, zaldiz?), an Antxiñako Andra Mari izeneko eliza barruan liburu barria idatzi berreun eta irurogei eta zortzi lege! —eta barriro Bilbora itzuli. Dana ogei eta lau ordutan! Eta ori laguntzaille barik eta idazgaillu barik. Sinistu ete lei?

Foru Barria edo Barriztatua Batzordearen aurrean aurkeztu ebenean, guztiak ao batez esan eben: “Barriro egin zan Forua ondo egiña egoala, eta Bizkaiko Lege Berezi, Erri-eskubide, Foru eta oituren arabera idatzia izan zala...” (Foru-liburua, 24).

Foru Barri au 1527-garreneko jorraillaren zortzi-garrenean onartu eban Valladolid-en Carlos Enperadorea, eta irarteko baimena emon be bai. Urrengo urtean —1528-garrenean— Burgos-en irarri zan leenengoz Bizkaiko Foru Barriztatua.

Foru Barri au onartu eben Erregeak oneexek dira:

- 1575-garrenean II Felipek.
- 1602-garrenean III Felipek.
- 1621-garrenean IV Felipek.
- 1667 eta 1681-garrenean II Carlosek.
- 1702-garrenean V Felipek.

- 1751-garrenean VI Fernandok.
- 1760-garrenean III Carlosek.
- 1789-garrenean VII Fernandok.

Foru Barriztatu au oso-osorik egon zan indarrean 1839-garrenean II Isabellek emon eban legea arte. 1876-garrenean, ostera, Casovasek emon eban Legearen indarrez, guztiz galdu zan.

1526-garrenean egin zan Foru Barri edo Barriztatu onetan ez datoz Bizkaiko errian gordetan eta betetan ziran usuario eta oitura guztiak. José Lasa Apalategi jaunak diñoanez, amaseigarren gizaldian eta gure egunetara arte iraun daben usuario eta oitura asko eta asko ez zituen Foru Barrian ezarri, orduango legegilleen eretxiz, beiñenak eta garrantzizkoenak ziranak baiño.

6. LURRALDE LAUAK EDO “TIERRA LLANA”K EGIÑA

Bizkaiko Forua antxiñako gure asabakandik datorkigun ondarerik arrigarriena eta baliotsuena dala, diño batzuk. Euskera bera baiño be beinago ez ete dan irakurri dot liburu baten (José Lasa Apalategi, “Gernika, cuna de la democracia vasca”, 30 eta 31 or.).

Nortzuk egin ete eben Foru arrigarri au?

Edo beste berba batez esanda; Bizkaiko Forua, Bizkaikoa ete da?

Itaunok badabe garrantzirik.

Bizkaitarrak egiña, ori bai, edo Bizkaiko erriak euren bizitzea eratu eta zeaztuteko egin eben lege-bilduma, bai.

Baiña Bizkaiko errialde eta eskualde guztiak parte artu ete eben lege-bilduma egikeran?

Ez, ori be ez. Bizkaiaren zati batek bakarrik osoturiko lege-bilduma da: Lurralde Laua edo “Tierra Llana” eritxonak egiña.

Lurralde Laua edo “Tierra Llana” izenak ez dau esan gura lurra laua danik. Bizkaialdea ez da laua, lautada medar batzuk badagoz baiña. Menditsua da.

Esakera orrek beste zerbait adierazo gura dau: erri-erakundea, au da, erri sakabanatua, baserriz, elizatez edo elixaldez osoturikoa.

Bizkaian eta Euskalerrri guztian, dirudianez, iru erri-erakunde izan dira.

Leenengoa: *auzoa*. Menditarte baten edo lautada baten bizi ziran antxiñako euskaldunak alkartu egiten ziran euren arazoak garbitzeko eta konpontzeko, eta auzoan egiten zituen batzarrak.

Arteagako Zendokiz auzoan, adibidez, antxe dago oraindik zutunik zugaitz-arbola bat, "arbol asambleario" edo batzar-leku deritxana. Zugatzaren inguruan antxe dakusguz gaur be jesarteko ziran arrizko jesarlekuak.

Geroago, kristaualdiak eraginda, lekuan lekuan elizak egin ziranean, elizaren inguruan alkartzen ziran inguruetakoa auzoak. Eta batzarrak elizpean egiten ebezan. Orixe da *elizatea*, bigarren erri-erakundea, gazteleraz "anteiglesia" deritxana.

Elizako atean ipinten ebezala dirudi batzarrerako deia eta batzarrean artzen ziran erabagiak. Ortik dator, antza, ELIZATE —elizako ate— izena.

Erri-batzar zabalak izaten ziran, au da, idekiak, erri osoaren aurrean egiten ziranak. Nornai joan zeitekean.

Arteagari gagokionez, eliza nagusiaren elizpean dago oraindik Eskribaua egoten zan nabar-arrizko —marmolezko— maia. Eta alboan arrizko jesarlekuak jendearentzat.

Bizkaiko ainbat erritan onango mairik eta jesarlekurik ikusi daiteke gaur be.

Elizate edo "anteiglesia" dalako erri-erakunde orri ELIXALDE deitu dakioke, Jose Migel Barandiaran jaun jakintsuaren eretxiz. Eta ederto esanda ei dago. Kortezubin entun ei eban leenengoz berba ori, berak diñoanez ("El mundo en la mente popular vasca", III zatia, 71 or.).

Urrengo, amaseigarren mendean-edo, Udalak agertzen asi ziran, eta erriko batzarrak Udaletxean egiten dira arrezkeru.

Irugarren erri-erakundea *ERRIBILDUAK* edo "VILLA" k dira elizate bateko lurraldean Erregek edo

ZER

ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

ARPIDETU ZAITE!

ZER

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14-2.º - BILBAO-1

beste Jaun batek sortuak. Elizatea baiño beranduago-ko erakundea da.

Ba, ara:

1526-garreneko jorraillaren bostgarrenean Gernikako Zugatzaren pean egindako Batzarre Nagusian artu eben Foru Zaarraren barriztapena egiteko erabagia, esan dogunez.

Batzarre Nagusi aretan Lurralde Lauko edo "Tierra Llana"ko berrogei eta amazortzi elizatek artu eben parte, Bizkaiko errietako ordezkari lez. Ez Erribildu edo "Villa" eritxenak, ez Durangaldeak, ezta Enkartaldeak be. Lurralde Lauko elizateak bakarrik.

Foru-liburuaren sarreran dator zeatz-meatz zein elizatako ordezkariak esku-artu eben, elizatearen eta ordezkariaren izen eta guzti. Guztiz berrogei eta amazortzi. Bilbok berak be, "Villa" zalarik, ez eban esku-artu. Ez Gernikak, ez Bermeok, ez Lekeitiok, ez beste "Erribildu" edo "Villa"zanak.

Au da:

Bizkaiko Lurralde Lauan edo "Tierra Llana" eritxan Bizkaiko zatian bizi ziran bizkaitarren frutua dogu, beraz, Bizkaiko Foru Barria.

1526-garreneko jorraillaren bostgarrenean egindako Batzarre Nagusi aretan, alan be, elizateetako berrogei eta amazortzi ordezkariak bakarrik ez eben esku-artu. Beste askok be bai.

Foru-liburuak onan diño:

"Batzarre Nagusi jakin baterako deia artu ondoren, Zugaitz onenpean guztiz Noble dan Loaisako Pedro Giron Lizentzidun jauna, Jaurerri onetako Korrejidorea, eta Muxika eta Butrongo Don Joan Alonso, eta Arteaga Ganboako Don Juan Arteaga Etxe eta Sortetxeko Jauna, eta Bizkaiko beste Zaldun, Eskutari eta Aitonen Semerik asko, ainbeste eta ainbeste diranez, izenik ez da aitatzen..., Jaun Aundien Eskribau eta areen Gortean eta Erreiñu eta Jaurerri guztietan Erri-Notario eta Bizkaiko Batzorde eta Errejimentuko Eskribau garan Ibargüengo Iñigo Urtiz eta Basarazgo Martinen aurrean batu ziran..."

Bazan, ba, jendetzarik, erri-ordezkarietz kanpo. Baiña erri-ordezkariak aitaturiko berrogei eta amazortzi. Besterik ez.

Badakizu Bizkaiko Lurralde Laua edo "Tierra Llana" sei merinaldetan egoana bananduta: Busturia, Uribe, Bedia, Zornotza, Arratia eta Markina. Foruak berak zazpi merinaldetan egoala diño bananduta: aitaturiko seiok eta Durango. Baiña ez Durangok eta ez Durangaldeak ez eben parterik artu Foru Barriaren egikuntzan.

Guzti au dala-ta, Bizkaiko Foru Barriari obeto eta zeatzago leritxokela uste dot Bizkaiko Forua esan bearrean, Bizkaiko Lurralde edo "Tierra Llana"ko Forua deituko balitzakio.

Bizkaian Foru izena emon dakioko Erregeak edo Jaunak Erribilduai edo "Villa"i ezarritako erri-erakundeari be. Eta auxe da Foruak daukan bigarren esangurea.

Gogoan artzekoa da E. Labayruk gai onetaz diñoana: "La villa en Bizkaia es contra el modo de ser de su solar, y las bases de su formación de procedencia extraña".

Baita: "Una cosa es el fuero eúskaro y otra las cartas pueblas, aunque se les llame fuero de población. El carácter de Bizkaia es el de ser tierra llana, lo que significa otra cosa que carencia de población recogida y murada. Por su naturaleza las villas fueron antiforales. Por tanto, el gobierno de ellas tenía que ser distinto" (HISTORIA GENERAL DE BIZKAIA, Tomo I, Libro II, Cap. XXII).

Erregeak eta Jaunak Bizkaian Erribildu edo "Villa"k sortu eta eratu ebezanean, geienetan Logroñoko Forua ezarri eutseen.

7. BIZKAIKO FORUA ETA EUSKERA

Euskaldunok geure euskeraren egoera larria kontuan artu bagengi, txikikeria eta uskeria guztiak alde batera itxita, eginaalak egingo gendukez euskera gaxo au aurrera atara dagigun. Euskeraren salbakuntza dogu, izan be, gure erri onek gaur egun daukan arazorik garrantzizkoena eta premiñazkoena.

Euskalerraren ezaugarririk beinena eta nabarmenena euskera dogu zalantzarik baga. Berau gal balekigu, Euskalerrarenak egin dau. Beste erri bat izango litzateke. Euskalerria, ez. Euskalerria euskeradun erria da.

Urteetan eta gizaldietan zear gure berbetea au gainbera eta gainbera datorkigu. Galtze onen zegaitiak aztertu bagengiz, ainbat eta ainbat aurkituko gendukez ziurkiro.

Aurrera egin baiño leen, autortu dagidan garbi-garbi: euskalduna euskerazalea izan da beti, euskera maite-maite izan dau. Osterantzean, zelan gordeko eban berbetea arrigarri au gizaldietan eta gizaldietan, gero ondare miragarri lez guri izteko? Era batera, baiña, arlo batzuetan ardurabakoak izan gara. Eta orrexegaitik euskeraren gainbera etorte onetan geuk euskaldunok be errua izan dogula esan bear, eta erru ez txikia bearbada.

Ardurabakokeri eta itxikeri au oraingoa eta leen-goa da. Leengoa aundiagoa izan zala esateko nago oraingoa baiño. Gure aurretikoak uts aundi bat egi eben arlo onetan. Bai bizkaitarrak, bai gipuzkoarrak eta bai beste euskal errialdeak. Euskera jorratu eta landu ez ebela egin, ain zuzen. Gure euskal literatura-barrutia naiko erkiña eta medarra da orrexegaitik.

Etxeko berbetea izan eben euskera, gure eskaratz edo suetetakoa, ardangelakoa, jolas-tokietakoa.

Gizarte artu-emon nagusietan, ostera, gobernu-izkribuetarako, legezko izkuntzarako, kultur-barrutirako eta abar, beste izkuntza bat artu eben, euskaldunentzat kanpokoa eta arrotza zan izkuntza.

Oiturea orixe zalako izan zeitekean. Leen-leen latin-izkuntza izan zan goi-maillako berbetea Europako errialde guztietan. Latin ondatu zanean, barriz, latinkumeak artu eben erromatarren berbeteak gizar-tean izan eban lekua. Latinkumeak bakarrik izena, oorea eta omena. Euskerarentzat ezer be ez, edo gitxi-gitxi. Ez zirala jabetu dirudi euskeraren ederraz eta balioaz. Euskaldun jakitunak, eskolatuak, agintariak, aundikiak, aberatsak, goiko elizgizonak, Nafarroako Erregeak eta abar, euskera zala-ta, beste jarrera bat artu izan balebe, gaur beste egoera batean aurkitu zeitekean euskera gaixo au.

Euskalduna, gaiñera, egundo ez da izan liburu-zale, irakurzale. Euskeraz gitxiago. Leen be ez eta orain be ez. Entzunzale amorratua, ori bai. Bertsolariak entzuten, adibidez, orduak eta orduak emongo dauz aspertu barik. Eta euskeraz irakurten eta idazten?

Esan dodanaren agergerri eta egiztagarri, Bizkaiko Foru Barria egin zanean jazo zana gogora ekarri besterik ez daukagu.

Badakigu Foru Barria 1526-garrenean idatziz ezarri zana Gernikan. Eta erri-ordezkarri lez, Lurralde Lauko edo "Tierra Llana"ko elizateak esku-artu ebena Forugintzan, ez Erribilduak edo "Villa"k. Azkenengo onek geroago asi ziran Gernikako Batzarre Nagusietara joaten, au da, XVII-garren mendean Lurralde Lauak eta Erribilduak alkargoa egin ebenean.

Foru Zaarra erabarrizteko erabagia artu eben Batzarre Nagusian esku-artu eben elizateetako ordezkarri guztiak, euneko eun, euskaldunak izan ziran ziurkiro.

Gaztelera gitxi-gitxi jakingo eben, ezer jakitekotan, edo nekez berba egingo eben, eta idatzi nekezago. Au dala-ta, Batzarre Nagusi aretan erabili zan izkuntza euskera izango zan ziurkiro.

Batzarreko agiria, alan be, gaztelera bakarrik idatzi eben. Urrengo datozan legeak be —berreun eta irurogei eta zortzi lege— gaztelera utsez idatzi ebezan.

Zergaitik ori?

Batzarre a egin zanean, Bizkaiko Jaurerriko Korrejidorea Loaysako Pedro Giron izan zan. Ebroz andikaldeko gizona eta euskerarik ez ekiana. Orregaitik idatzi ete eben, ba, agiria eta lege guztiak gaztelera utsez? Ez dot uste orregaitik bakarrik izango zanik.

Beste arrazoi au be irakurri dot nonbaiten. Jaure-rriko Jauna Gaztelako Erregea zanez —Forua erabarritu zanean Carlos Enperadorea zan, Bizkaiko Jaun— eta Forua Errege onek onartu bear eban ezkerro, berak ulertu egian eta zer onartzen eban jakin egian, orrexegaitik idatzi zirala gaztelera Batzarreko agiria eta legeak.

Euskeraz itz egin, ori bai, baiña agiria idatzi eta legeak izkribuz ezarri, guzti ori gaztelera eta gaztelera utsez. Lege-bilduma au euskeraz idatzi izan balitz, edo gitxienez izkuntza bitan —gaztelera eta euskeraz— etorkizun ohea izango leukean bearbada gure euskera onek. Ikastunentzat eurentzat be zeifien argigarri eta aberasgarri izango litzatekean Bizkaiko Forua amaseigarren mendeko euskeraz jantzita gaur irakurri aal izatea!

8. BIZKAIKO FORUAREN EUSKERAZKO LEEN-ITZULPENA

1981-garren urtean kaleratu zan Bizkaiko Foruaren argitaraldi barri au izkuntza bitan dator: gaztele-raz eta euskeraz, alderdi baten gezteleraz eta bestean euskeraz. Gaztelerazko testua Bizkaiko Foruaren iru- garren argitaralditik artua da, au da, 1643-garren urtean Bilbon egin zan leenengo argitaralditik artua. Argitaraldi oni Huidobroren argitaraldia deritxo.

Arduraz egindako argitaraldia ei da berau eta, aitua diñoenez, geroago egin diran argitaraldietan eta bearbada argitaraldi guztietan onena.

Bizkaiko Foruaren euskerazko leen-itzulpen au dala-ta, era bitako lana berezi bear da: Foruaren euskeratze-lana, bata, eta Foru beraren adierazte-lana (interpretatze-lana), bestea.

Euskeratze-lana garrantzizkoa izan bada, adierazte-lana ez da txikiagoa izan.

Foruak dakazan legeen esan-naia adierazo barik, ezin zeitekean ezelan be Foru ori euskerara itzuli. Arlo onetan aitua ez danak, lege askoren esangurea eta berba askoren adiera ulertu be ez ditu egiten. Amaseigarren mendean egindako lana da, izan be, eta arrezkero urak bide aundiak urratu ditu.

Euskeratze-lana neurea da. Adierazte-lana, ostera, José Estornés Lasa jaunarena. Bizkaiko Foruaren euskerazko leen-itzulpen au, ondorenez, biona da, Estornés Lasa jaunarena eta biona.

Pelotaka legez jardun izan genduan. Nik lege batzuk euskeratu eta korreoz Donostiara berari bialdu. Gero berak lege aldetik aztertu eta eginbearreko oarrak egin eta barriri niri korreoz Arteagara bialdu. Pelotaka legez. Ekin eta ekin. Ainbat eta ainbat illa-betetan. Korreoari be dirutan emon geuntsan, dirutan!

Pelotaka legez jardun arren, pelota-jokaldietan jazoten ez dana jazo zan gure ekitaldi onetan. Jokalari biok izan gareala irabazle, ain zuzen. Galtzaillerik ez da izan. Au da: gure aalegin, neke eta jardunaldi guztien frutu, oraintsu —1981-garren urtean— argitaratu zan Bizkaiko Foruaren euskerazko leen-itzulpen orixe dozu.

Beste irabaztun bat be izan dala edo izan daitela esango neuke: Bizkaia bera edo, nai izan ezkero, Euskalerrria bera.

Foruak dirala-ta, jazo be, gauza bitxia jazo da gure artean.

Bizkaiaren eta Euskalerrriaren Kondairan Foruak garrantzi aundiko zerbait izan diranik ezin legike iñork ukatu.

Ainbeste eta ainbeste urtetan or ibilli gara —leen esan dogunez— Foruak gora eta Foruak beera, Foruak kendu euskuezala-ta negar-zotinka, zizpuru-ka eta aieneka.

Foru Barri edo Barriztatu au, baiña, 1526-garren urtean egin izan arren, euskerara itzuli be ez dogu egin euskaldunok, 1981-garrenean euskerazko leen-itzulpena agertu arte. Laureun eta berrogei eta amabost urte geroago!

Ain foruzale izan dan Euskalerrri onek utsune ori zelan izan ete dau?

Lotsari auxa kendu gura izan geuntsan bai Bizkaiari eta bai Euskalerrriari.

Euskerari berari be mesedegarri izan dakiokela uste dot gure itzulpen au.

Liburuak azkenaldian dakarren Foru-iztegi orretan 711 berba datoz, Foru aalik eta zeatzen euskeratze-ko erabilli doguzanak. Itz guzti-guztiak ez dira egokienak izango bearbada. Baiña lege-iztegia erabat zeaztu egiteko laguntza aundia eta onuragarria izan daitekela-ta nago.

Itzulpenak iru idaztaldi izan dauz.

Leenengoan, bideak urratu egin genduzan, legeen aidera zeaztu eta iztegia aukeratu. Orixe izan zan elburu nagusia.

Bigarren idaztaldian, aalik eta euskerarik jatorre- nean liburua idatzi.

Bigarren idaztaldi au orraztukeran eta zuzenke- tak egikeran, baiña, orri guztiak zirriborroz bete nebazan-eta, barriren barri liburu guztia idatzi bear izan neban. Orra irugarren idaztaldia. Idaztaldi auxa da artitaratu dana.

Ez uste izan, orraitino, lege bakotxa iru bider bakarrik euskerara itzuli nebanik. Idaztaldi bako-

txean, lege bakotxa irulau biderrez idatzi neban. Orregaitik lege bakotxa zortzi-amar bider gitxienez euskeratuta dagoala esango neuke. Ez, euskerazko itzulpena ez da izan arrapaladan eta arin-arin egiña.

Itzulpena egikeran gauza bi batez be izan doguz gogoan. Foruagazko zintzotasuna eta leialtasuna, leenengo. Au da: lege bakotxaren mamia eta adiera aalik eta zeatzen agertu.

Bizkaiko Forua lege utsa da, 268 lege dakazan bilduma. Legeok 36 ataletan bananduta datoz.

Legeok erabagiten dabena adiera eta esangura beratan azaldu bear zan. Itzulpena orduantxe bakaerrik izan zeitekean egiazkoa eta zeatza.

Auxe izan zan guretzat garrantzizkoen elburua, euskeraren beraren jatortasuna baiño be areago.

Zintzotasun eta lealtasun oni beste ezeri baiño arretatsuago lotu giniakozan. Eta zintzotasun au argi ager zeiten, —aal izan dan neurrian bein-bein— iñoiz euskeraren berez-berezko joskerari be uko egin bear izan neuntsan.

Zintzotasun onen urrengo, euskeraren zelangotasuna gogoan izan genduan, aalik eta erriko euskerarik ulerterrezena erabilten aaleginduz.

Alan da guzti be, edozein lege edonork ulertzeko eran, ezin ezelan be euskeratu. Irakurlea bera zerbait —edo zerbait baino geiago— eskolatua izan bear euskeraren barrutian.

Bestalde, gaiak berak eta legeen esan-naia zeatz agertzeko erabilli bear izan diran berbak irakurgai illundu egiten dabe askotan. Au, baina, ezinbestekoa izan.

9. ITZULPENA BIZKAIERAZ

Bizkaieraz dator itzulpena. Eginkizun orixe leporatu eustan Estornés Lasa jaunak. Itzulpena bizkaieraz egiteko, euskeratzen dana Bizkaiko Forua dala-ta.

Nik itzulpenean darabildan bizkaiera onek, alan be, badau zerbait berezirik, oargarririk. Aldi onetako kezka agerri dala esango neuke.

1970-garrenean “Euskal aditza-bizkaieraz” izeneko liburua argitaratu nebanean —amabost urte etorri-

ko dira— A. Luis Villasantek, orduango eta gaur egungo Euskaltzainburuak eskutitz bat egin eustan, eta eskutitz aretan onan iñostan (arira dotorrena bakaerrik aitatuko dot): “Euskalkiak lantzea guztiz zilegi da. Orain euskalki horiek ez ditezela elkarrengandik urrundu, eta ahal den neurrian, elkargana urreratzeko ahaleginak egin ditzagula, hori da oraingoz (eta luzarorako noski) Euskaltzaindiaren bidea eta kontsejua”.

Euskalkiak bata-besteagana urreratze onetan izan dogu Bizkaian aaztu ezineko eragille eta bultzagille bat: Mikel Zarate, mundu onetatik goizegi eta gaztegi joan jakun maixu aundia. Galtze ikaragarria izan eban gure euskera onek Mikel Zarate galdu ebanean.

“Bizkaieraz nator —dinosku berak “Euskal deklinabidea” deritxan liburuan—. Bizkaieraz, Bizkaikoa nazalako, bizkaieraz azi eta ezi ninduelako, ondoen ezagutzen dodan euskalkia bizkaiera dalako. Bizkaieraz nator, bizkaieratik baturantz joteko asmotan, obeto esanda, batutik batuagorantz. Izan ere, bizkaiera euskera da, euskera jatorra, betiko euskera osoaren biotzean dagoan euskera. Eta euskera dan ezkeroko, euskera batua ere bada, euskeraren sustraian, oiñarrian (edozein euskalkitako euskeraren sustraian, oiñarrian) dagoan euskera batua, betitik baturik dagoan euskera. Eta euskeraren oinarrian dagoan euskera batu ori ezagutu egin bear dogu, leenengo eta bein, batutik batuago baterantz joateko, erdi baturik dagoana era batzeko, batu barik dagoana, ere, azkenez, batzeko.”

Onantxe itz egin eban maixu aundi arek. Eta taiuzko berba zuur onek —ni bizkaitarra izan ez arren, baiña neu be “bizkaieraz azi eta ezi ninduelako— neuretzat artu nebazan itzulpena egiteko. Orregaitik bizkaieraz. Baita ain baztertua dakusgun euskalki oni arnasa apur bat emoteko be.

Mikel Zaratek darabillan euskal deklinabidekera bera darabilt neuk be Bizkaiko Foruaren euskerazko leen-itzulpenean.

Era beratan, aditzari gagokiozala, “dodaz”, “doguz”, “nebazan” eta onango beste adizkien orde, bearbada bizkaieraz jatorragoak izan arren, “ditut”, “ditugu”, “nituan” eta onango jokoak darabildaz, sortzez Bizkaikoak ez badira be, Bizkaian erabilli egiten dira-ta.

Bizkaieratik beste euskalkietara urreratuaz goaz, beraz, itzulpenean. "Ahal den neurrian", A. Luis Villasantek esanaren arabera.

Itzak aukeratzeari edo iztegiari buruz, ertz bitatik iges egin gura izan genduan, gure ustez okerrak diran ertz bitatik: garbizalekeritik eta mordoillokeritik.

Bien bitarteko bidea autatu genduan. Aal dala, euskerazko berbea erabili. Osterantzean, gazteleraz-

ko testuak dakarren berbea euskaldundu. Au dala-ta, Korrejidore, Prestameru, Merino eta gazteleratik beste itz batzuk aurkitu daitezke liburuan.

Lege-jakingai bat zeaztuteko, euskal arrobotik ataratako itz bat egokia izan danean, itz orixe artu neban.

Foruak ainbeste bider aitatzen dauan gaztelerazko "libertades" itza euskeratzeko, naiko buruko min izan neban.

LIBURUAK

Alboan agertzen diran zerrendako liburuak salgai dira «**EUSKERAZALEAK**» 'en idazkaritzan.

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º
Teléfono 423 53 22
B I L B A O - 1

Los libros al lado indicados pueden adquirirlos en las oficinas de «**EUSKERAZALEAK**».

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º
Teléfono 423 53 22
B I L B A O - 1

Nora Zoaz	350	laurleko
Giza Soiña	350	»
Iniciación al Euskera	350	»
Irakurgai errezipolitak I	100	»
(Zenbat Urte)		
Irakurgai errezipolitak II	200	»
(David Copperfield)		
Aurtxoia II	100	»
Eginkizunak I	100	»
Eginkizunak II	100	»
Eginkizunak III	100	»
Euskal Irakasbide Laburra	400	»
(Gramática X. Peña)		
Euskal Irakasbide Laburra, 3 kaseta	1.000	»
(Gramática X. Peña)		
Diccionario Ikas	500	»
Ipuñak	350	»

Leenengo idaztaldian “askabideak” berbea erabili neban. Ez dot uste ain txarto egongo zanik. Baiña, gero lege-bilduma guztia itzulita, “libertades” itz orrek esangura berezia eukala Foruan konturatu nintzan, eta itz onek daukan mamiña eta guna agertzeko “erri-eskubideak” itza askoz egokiagoa dala iruditu jatan.

Izan be, Bizkaiko Foruak dakazan legeak ez dira edonoizko eta non-naiko legeak. Ez dira burutapen uts bat, “libertad” ori mamindu egiten daben gertakari zeatzak baino. Beste itz batez esanda: Bizkaia zer gauzatan dan aske edo zer jazoeratan dan bere buruaren jabe eta bere eskuko. Orixe besterik ez da Bizkaiko Foru guztia. Eta Foru au errian sortu ziran eta beronek urtetan eta urtean gorde eta bete ebazan usario eta oituretatik datorkizun ezkeru, “libertades” itz onen euskerazko itzulpenik egokiena eta esangarriena ERRI-ESKUBIDEAK itza dogu orrexegaitik.

“Privilegio” itza be badakar. Baina Foruan “privilegio” ori ez da bestek utsean edo dubarik egindako mesede bat, emen berton bizirik ziran lege bereziak baiño.

10. ITZULPENAREN ZAILTASUNAK

Itzulpena burutzeko ze zailtasun edo gatxtasun izan dodan jakin gura izango leuke bearbada norbaittek.

Leenengo oztopoa Foruak dakarren gaztelera bera izan da. Gaztelera au amaseigarren mendekoa da, garai aretako Eskribauen berbetea, au da, legeberbakuntza, esaldi luzeak eta luzeak, biurriak eta naastuak daukazana. Onango zatiak zerbait ulerga-

rriro eta egokiro euskeratu nai izateak badakar buruausterik.

Bigarren zailtasuna, aundia baiño aundiagoa, amaseigarren gizalditik onantza esaldi askoren eta berba askoren adiera eta esangurea aldatu egin dala. Eta berbok eta esaldiok zer esan gura daben jakin barik, zelan euskeratu?

Ori dala-ta, legetan agertzen dan esaldi bakotxa eta berba bakotxa esangurean mugatu eta zeaztu egin bear, esangura orretan beratan euskerara itzultzeko. Bear-bearrezko lana. Berau egin barik ezin ezelan be Forua bizkaieratu. Lan aundi au José Estornés Lasa jaunak egin eban, eta beronen esanetara nik gero euskeratu.

Adibide bat ekarriko dot eragozpen onetaz konturatu zaitez.

Foruaren IV Atalak onan diño:

“DE LA RESIDENCIA DE LOS ALCALDES Y EJECUTORES.

LEY I: Que los Alcaldes del Fuero y herrerías y Diputados hagan residencia, y en qué casos no pueden tornar a los mismos oficios (ondoren legea dator).

Berbeta au zelan ulertu? “Residencia” eta “hacer residencia” esan ezkeru, gaurko berbetan egoitza edo bizilekua esan gura dala dirudi, eta onantxe euskeratu neban nik, baiña onan euskeratu ezkeru, lege a zertara datorren be ez da ulertzen. Estornés Lasa jaunak adierazo eustan amaseigarren gizaldian eta legeberbakuntzan “hacer residencia” orrek kontu-emotea esan gura ebala, au da, alkateak eta beste kargudunak euren karguaren kontua emon bear ebela. Onan, bai, onan ederto ulertzen da legeak diñoana. Bestelan, ezin.

ARPIDETZEKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar
..... kalean (auzoan) zenbakian
..... errian, errialdean (probintzian)
Arpidetzea ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordaintxartela, an daukadan zenbakidun diru-kontura.

❁ TITVLO DIEZ Y OCHO DE LOS ❁
troques, y cambios.

¶ *Ley. I. Como se puede deshazer el troque por engaño.*



Tro si dixerō, q̄ auia de fuero, y estableciã por ley; q̄ si algũ Vizcayno, q̄ tenga alguna heredad, trocare, ò cãbiare cõ otro a otra heredad, y se reclamare dentro de año, y dia; alegando que fue engañado en el dicho troque y cambio; que en tal caso, si se hallare q̄ en el tal troque, y cambio vuo engaño de la tercia parte, q̄ el engaño sea emendado. Pero q̄ en elecciõ sea de la otra parte, q̄ poseyere la cosa, de emendar el engaño, ò boluer la cosa.

¶ *Ley. II. Como no se puede hazer troque en fraude de los profincos.*

Otro si dixerō, q̄ auian de fuero, y estableciã por ley; q̄ por quanto acaeze q̄ muchas vezes hazē los Vizcaynos entre si los ta-

les troques, y cambios por defraudar a sus profincos, deziēdo q̄ el priuilegio q̄ tiene de profinca y del trõco a los bienes, no ha lugar en los troques, y cambios, saluo en las cõpras, y vêtas. Porē de dixeron q̄ doquier que troque, y cãbio interuēga de heredades no aya lugar el dicho priuilegio, ni sea oydo, ni admitido profinco a facar la tal heredad trocada, saluo si interueniere el dicho fraude: y q̄ se presume interuenir fraude de profincos, si la vna de las heredades trocadas, y cambiadas excediere a la otra en valor la tercia parte: cã en tal caso sea oydo, y admitido el tal profinco segun y de la manera, y con las solemnidades, y forma, que se admite en las cosas vendidas. Y asì mesmo se presume el tal fraude, si el vno ò el otro se posee su heredad como de antes por si ò por su voz, ò por interpuestas personas en algun tiempo despues del troque.

TITVLO

doan emoleak moztu daike-
la, antxiñako Areitza ta bein
bere moztu bagakoa ta ezku-
rra ta frutua ekarri dagizan

moztu baga itxirikoa izan
ezik; orrelakorik ez daitela
moztu ta garaua erdi bana
egin daitela.



AMAZORTZIGARREN ATALA, TRUK

egitea ta ordez emotea dala-ta.



*I Legea. Iruzurrez truk
egitea zelan ausi daiteken.*

Baita, esan
eben: Foruz
ebela ta Lege-
tzat ezarten
ebela, Bizkai-
tarren batek beste bati truk
eginez edo ordez emonez
soloren bat artuko baleutso,
eta urtebete ta egun baten
buruan, truk egikeran eta
ordez emokeran, iruzur egin
jakola erakutsirik, barriro
eskatuko baleu, truk egite ta
ordez emote orretan iruga-
rren batek iruzur egin ebal
agertu ezkeru, iruzur ori
arteztu daitela. Iruzur ori
arteztu edo gauzea biurtu,
baiña, gauzea daukan beste
alderdiaren eskumendean
izan daitela.

*II Legea. Sort-senideei iru-
zur egiñik ezin daitekela
ezer truk egin.*

Baita, esan eben: Biz-
kaitarren artean
jazo oi danez, onan-
go truk egitea ta ordez emo-
tea sort-senideei iruzurrez
kentzeko egiten dala, sale-
rosteetan izan ezik, belaun-
ondareko ta sortetxearen
ondasunei buruzko lege
berezia truk egikeran eta
ordez emokeran ezin daite-
kela onartu esanez. Orregai-
tik, Foruz ebena Legetzat
ezarriz, esan eben: Soloen
truk egitea ta ordez emotea
egin oi dan guztietan, lege
berezi ori ez daitela aintzat
artu eta sort-senideri ez
dakiola entzun, ezta orrela
truk egiñiko ta ordez emoni-
ko solorik bereganatzen
berari itxi bere, orrelango
azpikeririk eta sort-senideek
iruzur dagitelako usterik eta
truk egiñiko ta ordez emoni-
ko soloren bat baliotasunean
bestea baiño irutatik bat
geiago izan ezik; olakoan.

Irugarren zailtasuna auxe izan zan: legeen eta berba askoren adiera bear zan zintzotasunaz eta argitasunaz azaltzeko euskerazko itz egokirik eza.

Izan be, Bizkaiko Forua lege utsa da edo lege utsezko bilduma. Eta lege-barrutian (Eskugo edo "Derecho"-arloan) zoritxarrez euskera ez da erabili. Ortik etorren gatxatasuna. Foru-liburuan datorren IZTEGIAN zazpireun eta amaika itz daukazuz legeen esangura zeatza adierazoteko bear izan diranak, itzulpena egikeran, gure leenengo elburua —leen be esan dot— Foruagazko zintzotasuna eta leialtasuna izan diralako.

Iztegiak aitzatekotan, leenengo A. Plazido Mujikaren "Diccionario Castellano Vasco" iztegi mardula aitatu gura neuke. Berau izan neban lanerako tresnarik baliotsuena. Ezin esan alako mesedea egin eustan. Iztegi au izan ez baneu, ezin izango neukean egin neban lana burutu.

Azkueren iru izkuntzatakako Iztegia be guztiz lagungarri izan jatan.

A. Manuel Larramendiren Iztegi be jo izan dogu iñoiz. "Urrunde" itza, esate baterako, gaztelerazko "rebeldía" euskeratzeko ("rebeldía" ez gero matxinada edo iraultza dalakoa, Eskugo edo Zuzenbideari gagokiozala baiño) Larramendigandik artuta dago. Baita "bigabesa" be, gaztelerazko "braza" adierazoteko.

11. EUSKERAZKO BERBAK BIZKAIKO FORUAN

Arrago: Azkueren eretxiz, "crisol" da, oletan burdiñea urtzeko zuloa. XXIV Atalean, X Legean dator.

Geldo: Gaztelerazko "escoria" da, au da, oletan burdiñea urtuta gero gelditzen zan zabarra edo ondakiña. Arabako Oletan "zepa" esaten da. XXVII Atalean, I Legean dator.

Usa: Erriko basoa. Azkuek be badakar bere Iztegian. L. Atalean, VIII Legean dator.

Ilburuko: Testamento (en la cabecera de la muerte, Adrián Celaya). Azkuek diño berba au Bizkaiko Foruan datorrela. Baiña Foru Barriak ez dakar. Foru Zaarrean izango da.

12. BIZKAIKO FORU BARRIAREN ARGITARALDIAK

- I.—Burgosen, 1528-garren urtean.
- II.—Medina del Campon, 1575-garrenean.
- III.—Bilbon, Huidobrok egiña, 1643-garrenean.
- IV.—Bilbon, Zafrak egiña, 1704-garrenean.
- V.—Bilbon, Eguzkizak egiña, 1762-garrenean.
- VI.—Bilbon, Eguzkizaren alargunak egiña (urterik ez da dakigu).
- VII.—Bilbon, Delmasek egiña, 1865-garrenean.
- VIII.—Bilbon, Biblioteca Vascongada de Fermin Herrenek egiña, 1897-garrenean.
- IX.—Bilbon, Bizkaiko Aldundiak egiña, 1898-garrenean.
- X.—Bilbon, Bizkaiko Aldundiak egiña, 1977-garrenean.
- XI.—Bilbon, José Estornés Lasak egiña, euskeraz eta gazteleraz, 1981-garrenean.

IPUIN-SARIKETAKO TXAPELDUNAK

Aurtengo Ipuin-Sariketeari be emon dautsogu azkena. Ipuinak naikoa ugari etorri dira, eta geienak guztiz onak. Urrengo urtean sari barik geratzen diran ipuinak, geienak ain onak izaten diran ezkerro, ZER onetan argitaratzeko eskaria egingo jake idazleai, orretarako beste sariren batzuk ezarri edo ordaiñen bat eginda. Tamalgarria da benetan olako lan ederrak, sarritan jazoten dan lez, argitaratu barik galtzea.

Orrillaren 16'an batu zan epai-maia, maikide bakoitxak lanak aurretiaz aztertu eta bakoitxak bere eritxi ekarrela, aria, asmamena, joskerea, idazkerea, iztegia ta aditza ondo erabiltea kontuan artuta.

Maikideen eritxiak alkartu ondoren ona emen nortzuk urten eben irabazle edo txapeldun:

- 1.º SARIA: GOIKOETXEA'tar Iñaki'ri.
- 2n. SARIA: BERGARETXE'tar Jon Joseba'ri.
- 3n. SARIA: ZUBIKARAI'tar Augustin'eri.
- 4n. SARIA: ARGINTXONA'tar Anastasio-Matai'ri.

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izenean zorionik beroena irabazleai. Batzuk ezagunak dira sarien munduan, beste batzuk ez ainbeste. Dana izan daitela Bizkai'ko Euskera idatziak geroago ta indar geiago izan dagian. Badaukagu or bizkaieraz idatzi dauan giputz bat be eta ori, antxiñakoak latinez esaten eben lez, "rara avis" edo egazti bakana da. Gipuzkeraz be izan dira ipuinak.

Eta sariak guztiai emoterik izaten ez dan ezkerro, aurtengoz irabazi barik geratu diranai, urrengorako itxaropena ez dagiela galdu eta datorren urtean be gure sariketan izango diralako itxaropena badaukagula esan.



Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.